

Haurren Txokoa (3-5 urte)

Helburuak

- Umeen artean euskararen erabilera bultzatzea.
- Gurasoez gain, beste nagusi eta ume batzuek ere euskaraz egiten dutela jakinaraztea.
- Umeek Euskal Etxean ondo pasatzea, ludoteketan pasatzen duten antzera.

Umeek bete beharreko baldintzak

- 3 urte beteta eduki (edo abenduaren 31 baino lehen betetzea) eta euskaraz ulertzeko gai izatea.
- Euskal Etxeko bazkide izatea (familia kuota).
- Umeko 35€ ordaintzea hiruhileko edo "trimestre" a. Bigarren umeak % 20ko deskontua izango du (28€).

Funtzionamendua

- Gutxienez 6 umek eman behar dute izena taldeak aurrera egiteko.
- Liburutegian edo gela berdean arituko dira.
- Aretoan ekintzaren bat dagoenean, gurasoek Txokoa itzarongo dute eta begiraleek atzeko atetik eramango dituzte umeak Txokora.
- Umeak etorri ezin badira, gurasoek sasoz abisatu behar dute begiraleari jakinarazteko
- Gurasoak ezin dira umeekin egon. Umeak berriak badira, hasierako egunetan, umea taldean integratu bitartean, arau hau malgutasunez hartuko dugu.
- 4 urtetik beheragoko umeen gurasoak Euskal Etxean geratu beharko dira Haurren Txokoa irauten duen bitartean, edo Euskal Etxean geratuko den beste guraso bat seme-alabaren arduradun izendatuko dute.

Umea matrikulatzeko agiriak

- Matrikula orria bete behar da, eta Euskal Etxean eman edo bidali.
- Umeak Haurren Txokoa parte hartzeko baimena bete eta sinatu behar da, eta Euskal Etxean eman (lehen egunean eman daiteke).
- 4 urtetik beheragoko umeen arduradun izendatze agiria sinatu eta Euskal Etxean eman. Hau eman ezean, ume horren gurasoek Euskal Etxean geratu beharko dute (Lehen eguneko guraso bileran antolatuko dugu hau).



Haurren Tailerra (6-10 urte)

Helburuak

- Umeen artean euskararen erabilera bultzatzea.
- Gurasoez gain, beste nagusi eta ume batzuek ere euskaraz egiten dutela jakinaraztea.
- Umeek Euskal Etxean ondo pasatzea, ludoteketan pasatzen duten antzera.

Umeek bete beharreko baldintzak

- Euskaraz hitz egitea edo, gutxienez, euskaraz ulertzeko gai izatea
- Euskal Etxeko bazkide izatea (familia kuota)
- Umeko 35€ ordaintzea hiruhileko edo "trimestre" a. Bigarren umeak % 20ko deskontua izango du (28€)

Funtzionamendua

- Gutxienez 6 umek eman behar dute izena taldeak aurrera egiteko.
- Jokoak, mini-tailerrak eta hainbat ekintza egingo dituzte umeek ikasturtean zehar.
- Tailer eta ekintza hauek, ahal den neurrian, Euskal Etxeko kultur agendako ziklo eta ekintzekin lotuta egongo dira.
- Liburutegian edo gela berdean arituko dira.
- Aretoan ekintzaren bat dagoenean, gurasoek Txokoan itxarongo dute eta begiraleek atzeko atetik eramango dituzte umeak Txokora.
- Umeak etorri ezin badira, gurasoek sasoz abisatu behar dute begiraleari jakinarazteko.

Umea matrikulatzeko agiriak

- Matrikula orria bete behar da eta Euskal Etxean eman edo bidali.
- Umeak Haurren Txokoan parte hartzeko baimena bete eta sinatu behar da eta Euskal Etxean eman (lehen egunean eman daiteke).

